

## Segurtasun pribatuari buruzko Legea

*Eunate PRIETO*

Gaur egun segurtasun pribatuaren sektorea erregulatzen duen arau nagusia da 5/2014 Legea, segurtasun pribatuari buruzkoa (aurrerantzean SPribL) eta 23/1992 Legea guztiz indargabetzen du.

5/2014 Legeak zioen azalpenean bere asmoak adierazten ditu: segurtasun pribatuaren gaia osotasunean arautzen duen lege orokorra izan nahi du; honetara, zazpi titulutan antolatutik, segurtasun pribatuaren sektorea taxutzen duten gai oro besarkatzea du helburu.

Jarraian bada, 5/2014 Legearen alderdi esanguratsuenak, oro har, azpimarratzeari ekingo diogu.

### **Aurre titulua**

---

Legearen aurre tituluarri dagokionez, aipagarria da segurtasun pribatuaren lege berria onartu arte juridikoki zehaztu gabekotzat jotzen ziren hainbat kontzeptu definitzen direla lehenengo aldiz; besteak beste: segurtasun pribatua, segurtasun-jarduerak, segurtasun-zerbitzuak, segurtasun-funtzioak, segurtasun-neurriak, detektibe pribatuen bulegoak,... (SPribL 2 art.). Orobat, Legeak lehenengo aldiz finkatzen du bere eremu materiala, baita segurtasun pribatuaren xedea ere; hau da, bere jardun profesionalaren bitartez, segurtasun publikoa osatzea helburu duela, bere zati baita (SPribL 1,3 eta 4 art.ak). Bestalde, segurtasun-jarduera pribatuen eremua eguneratzen da, aipatu jarduerak osatuz eta zehaztuz; honetara, segurtasun-jardueren zerrendan barneratzen du ikerketa pribatua (SPribL 5 art.).

Halaber, jarduera bateragarriak edo segurtasun pribatuan eragin zuzena dutenak arautzen dira (SPribL 6 art.); jarduera hauen artean lehenengo aldiz zerrendatzen du Legeak informazioen zein komunikazioen segurtasuna, segurtasun-enpresa pribatuak direnak eta ez direnak burutu dezaketena, alegia. Horrenbestez, Legeak Segurtasun Pribatuaren Errolda Nazional berria eta Autonomia Erkidegoetako erroldak arautzen ditu (SPribL 11 art.).

### **Lehen titulua**

---

Legearen lehen tituluan oster, garrantzia handia eman nahi izan zaion gai bat arautzen da: segurtasun-zerbitzu pribatuen eta segurtasun-indar eta kidegoen arteko koordinazioa, hain zuzen ere. Honetara, koordinazioaren printzipioak segurtasun publikoa hobetzea du helburu, segurtasun pribatuaren eta publikoaren artean informazioa trukatzuz, beti ere legezko bermeekin eta zenbait topagune-organo sortuz (SPribL 14-16 art.ak).

Bigarren tituluarri dagokionez, bertan segurtasun-enpresa pribatuak eta detektibe pribatuen bulegoak arautzen dira (SPribL 17-25 art.ak). Hain zuzen, enpresa zein bulego horiek zabaltzeko baldintzak, baita dagokien erroldatan —nazionala ala autonomikoa— izena ematekoak ere zehazten dira. Bestalde, jarduera ekonomikoa sustatzearren, administrazio-baimena lortu behar izatearen izapide neketsua ardurapeko adierazpenak edo aitortpenak ordezkaturiko du, ondoko establezimenduak abian jarri nahi direnean: langileen heziketa zentroak, detektibe pribatuen bulegoak eta instalazio zein mantentze enpresak.

## **Hirugarren titulua**

---

Legearen hirugarren tituluak berriz, segurtasun-langile pribatuak arautzea du helburu (SPribL 26-37 art.ak). Eurei zuzendutako xedapen orokorrak jasotzeaz gain —hala nola, sartzeko baldintzak, gaikuntza zein trebakuntza, jarduteko printzipioak, babes juridikoa,...— aipagarria da bereziki, ordura arte erregelamenduz arautzen zen hainbat gai, lehenengo aldiz lege arautuko dela. Hots, 1992ko segurtasun pribatuaren legeak soilik segurtasun-zaindarien eta detektibe pribatuen eginkizunak arautzen zituen; segurtasun pribatuaren lege berriak halaber, bizkartzain pribatuenak, landazainenak, segurtasun-buruenak, eta segurtasun-zuzendarienak arautzen ditu. Azpimarragarria da berebat, segurtasun-lanbideetara sarrera zabaltzen zaiela hirugarren Estatuetak naziotasuna dutenei —beti ere, Espainiarekin elkarrekikotasunean oinarritzen den nazioarteko hitzarmen bat sinatu badute—; ordura arte, espainiar naziotasuna, Europar Batasuneko estatu kide batetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatutako estatu kide batetako zutenek soilik jardun zezaketen segurtasun-lanbideetan. Horrenbestez, segurtasun-langileen babes-maila hedatzen du lege berriak, agintaritzaren agenteen berdintsua ematen baitie, segurtasun-indar eta kidegoekin lankidetzan eta euren menpe segurtasun-jarduera pribatuak burutzen dituztenean jasan ditzaketen erasoan aurrean.

## **Laugarren titulua**

---

Laugarren tituluari dagokionez, lege-mailarekin eta bateratuta arautzen dira lehenengoz, segurtasun-neurriak baita segurtasun-zerbitzu nagusiak —zaintza eta babesa, pertsonen babesa, segurtasun gordetegi zein garraioak eta ikerketa pribatua— betetzeari buruzko xehetasunak ere (SPribL 38-52 art.ak). Legeak orobat arreta berezia eskaintzen dio atal honetan hiritarren intimitatearen esparruan izatez zuzenean eragin dezaketen zerbitzuen arauketari: bideo-zaintza eta ikerketa pribatua, hain zuzen ere.

## **Bosgarren titulua**

---

Bosgarren tituluari oster, administrazio-kontrola arautzen da; honetara, lehen aldiz lege-mailarekin arautzen dira segurtasun-enpresa, langile nahiz neurrien gaineko kontrol eta ikuskatze-jarduerak (SPribL 53-55 art.ak).

## **Seigarren titulua**

---

Horrenbestez, seigarren tituluari segurtasun pribatuaren arloan zehatzeko erregimena arautzen du legeak —hots, arau-hausteak, zehapenak eta zehatzeko prozedura—, aurreko legediaren zenbait hutsune osatuz (SPribL 65-72 art.ak). Hain zuzen, legeak behar bezala banantzen ditu segurtasun-enpresa, langile eta erabiltzeek egin ditzaketen arau-hausteak, arreta berezia eskainiz bidegabe sartzea edo intrusismoa ekiditea helburu dutenen erregulazioari.